

**KULTURA ARLOKO OHIKO DIRU-  
LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK:  
2021 EKITALDIKO DEIALDIA**

**1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURUA  
ETA XEDEA:**

Deialdi honen helburu da Leioako udalerriko elkarteek egiten dituzten kultura arloko jardueren sustapenerako ohiko diru-laguntzak ezartzea. Kanpoan geratzen dira, beren-beregi, eskola orduz kanpoko jarduerak edo hezkuntza zentroek antolatutakoak.

**2. artikulua.- JARDUERAK  
EXEKUTATZEKO EPEA.**

Diru-laguntzen deialdi honen barne sar daitezke 2021ean zehar burututako proiektuak, 2021eko abenduaren 31 baino lehen burututakoak.

**3. artikulua.- ONURADUNAK:**

Honen bitartez deitzen diren ohiko diru-laguntzen onuradun izan daiteke edozein pertsona fisiko edo juridiko, izaera juridikoduna, helbide soziala edo establezimendu iraunkorra Leioan badauka eta Leioako Udaleko Elkartearen Erregistroan inskribatuta badago. Horrez gain, kultura arloko jardueraren bat garatzeko asmoa eduki behar du eta Leioako udalerrirako interesgarria izan behar du, deialdi honetan eta Leioako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorreko bigarren oinarrian zehazten diren irizpideekin ados.

Ezin izango dira onuradun izan Diru Laguntzen Lege Orokorreko 13.2 artikuluan ezartzen diren debekuren bat duten pertsona edo entitateak. Pertsonak edo entitateak onuradun izateko inolako debekurik ez dutela justifikatzeko, ardurapeko adierazpen bidez egin dezakete.

**BASES REGULADORAS DE LAS  
SUBVENCIONES DE CARÁCTER  
ORDINARIO EN EL ÁMBITO DE LA  
CULTURA: CONVOCATORIA DEL  
EJERCICIO 2021**

**Artículo 1.- OBJETO Y FINALIDAD DE LA  
CONVOCATORIA:**

Es objeto de la presente Convocatoria establecer ayudas económicas para el fomento de las actividades culturales de carácter ordinario realizadas por las asociaciones del municipio de Leioa, excluyéndose expresamente las actividades extraescolares o las organizadas por los centros educativos.

**Artículo 2.- PLAZO DE EJECUCIÓN DE  
LAS ACTIVIDADES.**

Podrán acogerse a esta convocatoria de subvenciones los proyectos que se realicen a lo largo del año 2021, antes del 31 de diciembre de 2021.

**Artículo 3.- BENEFICIARIOS:**

Podrá ser sujeto beneficiario de las subvenciones ordinarias que se convocan mediante la presente cualquier persona física o jurídica, con personalidad jurídica, que teniendo su domicilio social o establecimiento permanente en Leioa y esté inscrita en el Registro Municipal de Asociaciones del Ayuntamiento de Leioa, pretenda desarrollar una actividad cultural que, atendiendo a los criterios que se recogen en la presente convocatoria así como en la base segunda de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa, resulte de interés para el municipio de Leioa.

No podrán tener la condición de beneficiarios las personas o entidades en quienes concurra alguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

La justificación por parte de las personas o entidades de no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario podrá realizarse mediante declaración responsable.

#### **4. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA:**

Ikusita udal irabazi asmorik gabeko elkarteek ordezkariek zailtasunak dituztela, egungo egoeratik, udalarekin harreman elektronikoa izateko identifikazio-bitarteko nahikoak lortzeko eta, beraz, deitutako edo laster deituko diren dirulaguntzak eskatzeko eta lortzeko, eta kontuan hartuta irabazi-asmorik gabeko elkarteak direla,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikulua eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 10.4 artikulua, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, eta batez ere, aiptatutako 7/1985 Legearen 21.1 a), m) eta s) artikulua dioena, baita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 1. paragrafoaren c) idatz zatiak eta 25.7 artikulua ere,

Aurrez aurre aurkezteko aukera gaitzea, salbuespenez eta urte honetarako, Herritarren Arretarako Udal Zerbitzuetan

- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) Diru-laguntza normalizatuaren eskaera (H.9).
- b) Eskatzailearen NANren fotokopia.
- c) Entitate eskatzailearen estatutuen kopia.
- d) Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria.
- e) Entitatearen IFKren fotokopia, entitate juridikoa bada.
- f) Estatutuen arabera entitateko arduraduna denaren NANren fotokopia.
- g) Jarduera edo ekitaldiaren proiektu zehaztua, gutxienez, honako hauek

#### **Artículo 4.- LUGAR, FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:**

Vistas las dificultades de los representantes de las asociaciones sin ánimo de lucro del municipio de obtener por la situación actual medios de identificación suficientes para relacionarse vía sede electrónica con el Ayuntamiento y por tanto de solicitar y obtener las subvenciones convocadas o a convocar en breve, y en base precisamente a dicho carácter no lucrativo de las aquellas,

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y en concreto, en ejercicio de la facultad establecida por el art. 21.1 a), m) y s) de la precitada Ley 7/1985 y por el 25. 7 y la disposición adicional primera, apartado 1, letra c) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

Habilitar con carácter excepcional la posibilidad de presentación de las solicitudes y documentación al efecto de manera presencial en los Servicios de Atención Ciudadana municipales, durante este año 2021.

- La documentación adjunta que se debe acompañar a la solicitud es la siguiente:

- a) Solicitud de subvención normalizada (H.9).
- b) Fotocopia del D.N.I. del solicitante.
- c) Copia de los Estatutos de la Entidad solicitante.
- d) Certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco.
- e) Fotocopia del C.I.F. de la entidad, caso de tratarse de una entidad jurídica.
- f) Fotocopia del D.N.I. del Responsable de la Entidad, según los Estatutos correspondientes.

barne hartuz: proiektuaren deskribapena, jardueraren publikoa zein den, helburuak eta Leioako Udalarentzat jarduera zergatik den interesgarria beren-beregi aipatzea. Horiez gain, burutzeko lekuak eta datak zehaztu behar dira.

- h) Eskabidea egin den aurreko urte edo urteetan eskatzaileak diru-laguntza eskatu den proiektuarekin erlazionatuta dauden antolatutako jardueren memoria.
  - i) Eskabidea aurkeztu eta aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen balantzea. Eskabidea aurkezten den urteko aurrekontua, diru-laguntza eskaeraren xede den jarduera edo proiektuari dagokiona.
  - j) 2021 urtean garatu nahi den jarduera-egitaraua, epea eta datak, metodologia, helburuen deskribapena eta herriko zein esparrutarako zuzenduta dagoen aipatuz.
  - k) Eskatzaileak obligazio fiskalekin bete duela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko da, dagokion Ogasunak eginikoa. Zerga obligazioak Leioako Udalarekin baino ez dituzten elkarteen kasuan, eskabidean hori beren-beregi adierazten duen adierazpena erantsiko dute, eta Udalak jarriko du, ofizioz, aipatu ziurtagiria.
  - l) Eskatzaileak behartze-harremana duenean Gizarte Segurantzarekin, indarreko legearekin ados, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eginiko ziurtagiria aurkeztu beharko du, erakunde horrekiko obligazioekin bete duela ziurtatzen duena.
- g) Proyecto detallado de la actividad o evento para el que se solicita la subvención, incluyendo, al menos, descripción del proyecto, población a la que se dirige la actividad, objetivos que se persiguen y referencia expresa al interés que la actividad implique para el Municipio de Leioa, con indicación así mismo lugares y fechas de celebración.
  - h) Memoria de las actividades, relacionadas con la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención, realizadas por el solicitante durante el año o años anteriores a la solicitud.
  - i) Balance de ingresos y gastos del año anterior a aquel en que se presenta la solicitud, así como presupuesto del año en que se cursa la misma, relativos a la actividad o proyecto para el que se solicita la subvención.
  - j) Programa de actividades a realizar durante el año 2021, señalando plazos y fechas para su realización, metodología, descripción de los objetivos y ámbito poblacional al que van dirigidos.
  - k) Se presentará igualmente certificado de la Hacienda correspondiente, acreditativo de que la solicitante se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales. En el supuesto de Asociaciones cuya única obligación tributaria lo sea para con el Ayuntamiento de Leioa, incluirán en la solicitud declaración expresa en tal sentido, siendo el propio Ayuntamiento el que aporte de oficio el certificado mencionado.
  - l) Cuando la solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social, habrá de presentar certificado, emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social, acreditativo de estar al corriente de sus obligaciones para con la misma.

Quando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, eta bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkeztu bada, aldi berean, beste erakunde publiko edo pribatu baten aurrean, Leioako Udalaren aurrean aurkezten denak hori beren-beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien eta eskatutako, edo hala badagokio, jasotako zenbateko zehatzak.

Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri, proiektua bere osotasunean balioeste aldera.

*Eskabideak baztertzea:*

Azalpen memoria edota Leioako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentalik aurkeztu ez duten pertsona edo entitateen eskabideak ez dira aintzat hartuko eta, ondorioz, artxibatuko dira.

*Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:*

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 10 lan eguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela.

Epea: eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Udalaren iragarki-taulan (udaletxean.leioa.eus gunean dago) eta <http://leioazabalik.leioa.net/ayudas-y-subvenciones> webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, y que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan.

En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Leioa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de la institución o instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida.

El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

*Exclusión de solicitudes:*

No se tendrán en cuenta y, en consecuencia se desestimarán, aquéllas solicitudes formuladas por persona o entidad que tenga pendiente la presentación de memoria explicativa y/o justificación documental de subvenciones recibidas del Ayuntamiento de Leioa en ocasiones anteriores.

*Solicitudes incompletas o defectuosas:*

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sean incompletas o adolezcan de algún otro defecto subsanable, se requerirá la solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

- Plazo: La presentación de solicitudes se efectuará en el plazo de un mes a contar desde su publicación en el Tablón de anuncios municipal (ubicado en [udaletxean.leioa.eus](http://udaletxean.leioa.eus)) y en <http://leioazabalik.leioa.net/ayudas-y-subvenciones>

La presentación de las solicitudes fuera de los plazos mencionados dará lugar a la desestimación

Eskabideak aipatu epeetatik kanpo aurkeztuz gero bertan behera geratuko dira, bestelako tramiteren beharrik gabe artxibatuz.

#### **5. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Eskatzaileen artean banatzeko gehienezko zenbatekoa 27.500 €-koa da. Gastu hori 00900 33401 4811502 aurrekontu partidari kargatuko zaio.

Zenbateko hau Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da.

#### **6. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA:**

Diru-laguntza hauen emakida prozedura norgehiagokaren bidezkoa da.

#### **7. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:**

1.- Proiektuak balioztatzeko honako faktore hauek aintzat hartuko dira:

- a) Proposamena egiten duen pertsonak edo entitateak Leioako esparruan garrantzia izatea edota sustraitua egotea (sortze urtea, bazkide kopurua...).
- b) Eskatzaileak garatutako aktibitatearen jarraipena urteetan zehar.
- c) Udal programak antolatzeko kolaborazioa.
- d) Udal programa eta aktibitateetan parte hartzea.
- e) Aktibitate edo proiektuaren originaltasuna edo egokitasuna, Udalaren babespean egiten diren antzekoei erreparatuz.

de dichas solicitudes, archivándose las mismas sin más trámite.

#### **Artículo 5.- CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN**

La cantidad máxima a distribuir entre los solicitantes será 27.500 €, realizándose el gasto con cargo a la aplicación presupuestaria 00900 33401 4811502.

Dicha cantidad aparece recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa.

#### **Artículo 6.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN:**

El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones es el de concurrencia competitiva.

#### **Artículo 7.- CRITERIOS OBJETIVOS DE OTORGAMIENTO DE LA SUBVENCIÓN:**

1.- Para la valoración de los proyectos presentados se tomarán en cuenta los factores que a continuación se relacionan:

- a) Significación y/o arraigo, en el entorno del Municipio de Leioa, de la persona o entidad que formule la propuesta (año de constitución, número de socios/as...).
- b) La continuidad de la actividad desarrollada por la solicitante a través de los años.
- c) Colaboración en la organización de programas municipales.
- d) Participación en actividades y programas municipales.
- e) Originalidad y oportunidad de la actividad o proyecto, en atención a otras actividades similares que ya se vengán realizando bajo el patrocinio del Ayuntamiento.

- |   |   |
|---|---|
| <p>f) Proiektua egokia izatea eskabidean azaltzen diren helburuetarako.</p> <p>g) Proiektua garrantzitsua izatea Leioako kirol eta kultura testuinguruan.</p> <p>h) Zein kolektibotarako den.</p> <p>i) Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa, aktibitatea garatzeko eskatzen diren baliabideei eta Udalak horiek erabilgarri izateari erreparatuz.</p> <p>j) Garatutako aktibitatearen kostuak.</p> <p>k) Eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak.</p> <p>l) Beste finantzazio bide batzuetara jotzeko zailtasuna edo beste erakunde batzuetatik jasotako finantzazioa nahikoa ez izatea.</p> <p>m) Antolatzeko ahalegina, aktibitatea garatzeko behar diren giza baliabideen, egituraren edota baliabide ekonomikoen ikuspuntutik.</p> <p>n) Diziplina berean aurkeztutako proiektu kopurua eta erabilgarri dagoen kreditua.</p> <p>o) Aktibitatearen eragina gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.</p> <p>p) Aktibitatea garatzea EAEn ofizialak diren bi hizkuntzak erabiliz.</p> | <p>f) Adecuación del proyecto a los objetivos y fines precisados en la solicitud.</p> <p>g) Trascendencia del proyecto en el contexto cultural de Leioa.</p> <p>h) Colectivo al que se destina.</p> <p>i) Viabilidad técnica y económica, atendiendo a los medios requeridos para el desarrollo de la actividad, así como a la disponibilidad de los mismos por parte del Ayuntamiento.</p> <p>j) Costes de la actividad desarrollada.</p> <p>k) Medios económicos propios con que cuenta la solicitante.</p> <p>l) Dificultad para acudir a otros medios de financiación o la insuficiencia de la financiación obtenida de otras instituciones.</p> <p>m) Esfuerzo organizativo, tanto desde el punto de vista humano, como estructural y/o económico desplegado para el desarrollo de la actividad.</p> <p>n) Número de proyectos presentados que se refieran a la misma disciplina y crédito disponible.</p> <p>o) Incidencia de la actividad en la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres.</p> <p>p) Desarrollo de la actividad con utilización de ambas lenguas oficiales de la C.A.V.</p> |
|---|---|

Aurreko irizpide bakoitza neurtzea zaila denez, faktore guztiek izango dute garrantzia erlatibo berbera eskabideak baloratzean.

2.- Kultura Sailak baloratuko du proiektu bakoitza bere osotasunean, eta aholkularitza eskatu ahal izango diete egoki irizten dituzten pertsona edo entitateei.

Dada la dificultad para ponderar el peso de cada uno de los criterios anteriores, todos los factores tendrán el mismo peso relativo a la hora de la valoración de las solicitudes.

2.- Cada uno de los proyectos será valorado, en su conjunto, por el Área de Cultura, el cual podrá solicitar asesoramiento a aquellas personas o entidades que considere oportuno.

3.- Sortu berriak diren elkarteei 300 euroko diru-laguntza ematea azter daiteke, inskripzio gastuekin laguntzeko. Hurrengo urteetan, burutzen dituzten aktibitateen jarraipena egingo da, eta horien arabera emango dira ondorengo diru-laguntzak.

## **8. artikulua.- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA**

Instrukzio organoa Kultura eta Gazteria Saileko zuzendaria den udal langilea izango da, bera ez balego presidentek teknikari egokia izendatuko du.

Ebaluazioa egingo duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

- Kultura, Kirol, Gazteria eta Hizkuntza Politika Batzordearen presidentea, Alkatezaren ordezkari gisa.
- Bokalak:
- Herritartasun Batzordeko kide diren zinegotziak, presidentetzak izendaturik.
- Hezkuntza Atalera adskribatuta dagoen euskara teknikaria.
- Kultura eta Gazteria Arloko zuzendaria, deialdia arlo horri badagokio, eta Kirol Arloko zuzendaria, deialdia arlo horri badagokio.
- Bokal gisa integratu ez den arloko zuzendaria izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.
- Ez egoteak gertatuz gero, presidentetzak teknikari egokia izendatuko du.

Eskabideak Alkateza Dekretu bidez ebatziko dira Kultura Sailaren proposamenez. Dekretu hori Herritartasun Batzordeari jakinaraziko zaio,

Interesatuei jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena posta arrunt bidez bidaliko da. Emandako zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa balitz, onuradunari eskabidea onartzea eskatuko zaio. Onartutzat joko da kontrako ezer adierazten ez bada jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean.

3.- Se podrá contemplar la posibilidad de conceder una subvención de 300 € para cubrir los gastos de la inscripción a las asociaciones de nueva creación y en años posteriores se hará un seguimiento de las actividades que realizan y en función de las cuales se otorgarán las posteriores subvenciones.

## **Artículo 8.- INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN:**

El órgano instructor será el/la empleado/a municipal que desempeña la Dirección del Área de Cultura y Juventud, en caso de ausencias la presidencia designará al técnico/a oportuno.

El órgano colegiado que efectuará la evaluación estará compuesto por:

- La presidencia la ejercerá, El/la Concejal/a de Cultura, Deportes, Juventud y Política Lingüística, como Delegado/a de la Alcaldía.
- Vocales:
- Los concejales miembros de la Comisión de Ciudadanía, designados por la presidencia.
- Personal de Euskera adscrito al Área de Educación.
- El / la director/a del Área de Cultura y Juventud, en el supuesto de que la convocatoria concierna a la mencionada área y El/la director/a del Área de Deportes, en el caso de que la convocatoria se refiera a dicha área.
- Actuará como Secretario, con voz pero sin voto, El/la Director/a del área que no se haya integrado como vocal.
- En caso de ausencias la presidencia designará al personal o técnico oportuno.

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía a propuesta del Área de Cultura, y se dará cuenta del Decreto a la Comisión de Ciudadanía.

El plazo de notificación a los interesados será de 10 días a partir de la resolución. La notificación se realizará por correo ordinario. En caso de reducción del importe solicitado se solicitará una aceptación de la solicitud por parte del beneficiario,

Epea igarota, ez balego eskaerari legokiokeen beren-beregiko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago beren-beregi ebatz litekeen arren.

Leioako Udalak behar den moduan emango du jakitera espedienteen jasotako informazioa, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritz.

## **9. artikulua.- ONURADUNEN OBLIGAZIOAK:**

Deialdi honetako diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek honako obligazio hauek bete behar dituzte:

- a) Kultura arloan Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzak zehazten dituen arauak behar bezala bete, baita diru-laguntza emateko ebazpenak ezar litzakeen baldintza zehatzak ere.
- b) Emandako diru-laguntza onartu. Emakida jakinarazte aurrera, zazpi eguneko epean, pertsona edo entitate onuradunek ez badiote beren-beregi eta idatziz diru-laguntzari uko egiten, onartutzat joko da.
- c) Diru-laguntza erabili eskatu zen helburu zehatzerako.
- d) Diruz laguntzen den aktibitatea garatzeko behar beste baimen eskuratu.
- e) Aktibitate eta ikuskizun publikoei buruzko indarreko araudia bete (Eusko Legebiltzarraren abenduaren 23ko 10/2013 Legea, ikuskizun publiko eta jolaserako aktibitateei buruzkoa; eta ekitaldi horiek arautzen dituen Udal Ordenantza, bereziki Prozedura Bilduman 13. Ataleko fitxetan ezarten dena. <https://leioahurbil.leioa.net/es> webgunean eskuragarri), baita dagokion esparrura aplikagarriak diren

dicha aceptación se entenderá otorgada si no se manifiesta oposición en el plazo de 15 días desde la notificación.

En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

El Ayuntamiento de Leioa dará la debida publicidad a la información contenida en el expediente de acuerdo con la normativa de aplicación.

## **Artículo 9.- OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS:**

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones objeto de la presente convocatoria deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

- a) Cumplir debidamente con las normas establecidas en la Ordenanza Municipal Reguladora de concesión de Subvenciones en el ámbito de la Cultura, así como las condiciones particulares que pudieran establecerse en la resolución por la que se conceda la subvención.
- b) Aceptar la subvención concedida. Si en el plazo de siete días, a contar desde la fecha de notificación de la concesión, las personas o entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ha sido aceptada.
- c) Dar a la subvención concedida el concreto destino para el que fue solicitada.
- d) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada.
- e) Cumplir con la normativa vigente en lo referente a la organización de actividades y espectáculos públicos (Ley del Parlamento Vasco 10/2015 de 23 de diciembre sobre espectáculos

gainerako araudi guztiak ere, estatukoak edo erkidegokoak.

- f) Promoziorako elementuetan eta diruz lagundutako jardueretarako sortzen diren kartel, testu edo dokumentuetan, EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzi behar direnak, Kultura Kirol eta Gazteria Atalaren babes aipatu. Halaber, kartelak jartzeko udal araudia bete. karteletan
- g) Udalak eskatzen duen kolaborazioari erantzun –bereziki, euskararen erabilerari dagokionez- diruz lagundutako aktibitatea edo ekitaldia hobeto garatze aldera. Kontrako erantzunik jaso gero, eskabidea artxiba daiteke, edo hala badagokio, emandako diru-laguntza itzultzeko obligazioa, egoki liritekeen zigorrak ezartzeaz gain.
- h) Helburu berbererako jaso den edozein diru-laguntza jakinarazi, publikoa ala pribatua, eta betiere, jasotako zenbatekoa adierazi.
- i) Leioako Udalarekin kolaboratu, eskatuz gero, ikerketa, inkesta edo estatistikak lantzeko edota lantaldeetan parte hartzeko.
- j) Udalak egin ditzakeen egiaztapen guztiei men egin.
- k) Kultura, Kirol eta Aisialdi arloan emandako Diru-laguntzak arautzeko Udal Ordenantzaren 17. artikulua ezartzen duen bezala, emandako zenbatekoa nola erabili den gaineko zurrubidea egin.
- l) Jasotako dirua zertan erabili den justifikatzen duten agiri guztiak gorde, egiaztatze eta kontrol jardueretarako eska baitaitezke.

públicos y actividades recreativas y Ordenanza Municipal que eventualmente regule de tales eventos), concretamente lo referido en el grupo 13 de fichas del Manual de Procedimientos disponible en <https://leioahurbil.leioa.net/es>, así como con el resto de la normativa, estatal o autonómica, que sea aplicable al ámbito de actuación de que se trate.

- f) Incorporar en los elementos de promoción y en los carteles, textos o documentos que se elaboren con ocasión de la actividad subvencionada, los cuales deberán editarse en las dos lenguas oficiales de la C.A.V., la mención del patrocinio del Ayuntamiento de Leioa, cumpliendo en todo caso con la normativa municipal respecto a la colocación de carteles.
- g) Prestar toda la colaboración que desde el Ayuntamiento sea requerida –con especial atención a la implantación del uso del euskara- para un mejor desarrollo de la actividad o evento subvencionados. La negativa en éste sentido podrá suponer el archivo de la petición formulada, o en su caso la extinción y obligación de reintegro de la subvención ya concedida, así como la imposición de las sanciones que en su caso procedan.
- h) Comunicar la obtención de cualquier otra ayuda económica para el mismo fin, sea su procedencia bien pública o bien privada con indicación expresa en todo caso de la cuantía recibida.
- i) Colaborar con el Ayuntamiento de Leioa, en caso de ser requerida, para la eventual elaboración de estudios, encuestas, o estadísticas, así como la participación en grupos de trabajo.

- m) Kontabilitate liburuak, erregistroak, diligentziatuak eta bestelako agiriak behar bezala ikuskatuta eduki, merkataritza legeak eta onuradunari aplikatu dakiokeen sektoreko legeak exijitzen duten moduan, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileek exijitzen dituzten kontularitzako egoerak eta erregistroak, egiaztatze eta kontrol eskumenak egoki exekutatzeko aldera.
- n) Jasotako dirua itzuli (azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan zehazten dituen itzulketarako kasuren bat ematen bada).

#### **10. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA:**

1.- Diru-laguntzaren xede den aktibitatea behin amaituta, erabilera egokia egin dela ziurtatzen duen agiri bidezko justifikazioa egin beharko da.

2.- Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) Garatutako aktibitatearen memoria zehaztua.

- j) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúe el Ayuntamiento.
- k) Proceder a la justificación posterior del empleo dado a la cantidad otorgada, en los términos del artículo 17 de la Ordenanza Municipal Reguladora de concesión de Subvenciones en el ámbito del Deporte.
- l) Conservar todos los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, en tanto que puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control.
- m) Disponer de los libros contables, registros, diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- n) Proceder al reintegro de los fondos percibidos (en caso de incurrir en alguna de las causas de reintegro contempladas en la artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones)

#### **Artículo 10.- JUSTIFICACIÓN DE LA AYUDA:**

1.- Una vez finalizada la actividad para cuya realización se concedió la ayuda deberá procederse a la justificación documental que acredite el correcto empleo dado a la misma.

2.- La documentación a aportar a tales efectos será la relacionada a continuación:

- a) Memoria detallada de la actividad desarrollada.

b) Aktibitatearen ondoriozko diru-sarrera eta gastuen balantzea; diruz lagundutako aktibitateerako jaso den beste edozein diru-laguntza, publiko edo pribatu, sartu beharko da.

c) Aktibitatearen eraginez sortutako gastuen egiaztagiri originalak, emandako zenbateko osoa bete arte. Egiaztagiri horiek fakturak edo merkataritza legeen trafikoan proba-balio berbera duten bestelako agiriak izan daitezke.

Beraz, fakturretan honako hau zehaztu beharko da:

- Entitate, Elkarte eta abarren Identifikazio Fiskala.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Zerbitzua behar duen aktibitatea.
- Zerbitzuaren deskribapena.

Honako hauek ez dira egiaztagiritzat hartuko:

- Ordainagiriak
- Administrazio, antolakuntza eta abarren barruko kostuak.
- Anaitasun bazkari edo antzekoen kostuak.

d) Diruz lagundutako aktibitate edo ekitaldiaren testuinguruan editatu edo argitaratutako eskuorri, kartel, liburu, bideo, CD eta abarren ale bana eman. Horietan, Leioako Udala agertu beharko da diruz lagundutako aktibitatearen babesle bezala.

3.- Justifikatzeko gehienezko epea 2021eko abenduaren 31era artekoa izango da, ostirala.

4.-Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren II Tituluaren II Kapituluaren arabera, itzultze-

b) Balance de ingresos y gastos originados por la actividad; se deberá incluir cualquier otra subvención o ayuda, pública o privada, recibida para la actividad subvencionada.

c) Justificantes originales de los gastos devengados como consecuencia de la actividad, hasta el montante total de la cuantía concedida. Tales justificantes consistirán en facturas u otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.

Así, en las facturas habrá de indicarse necesariamente:

- Identificación Fiscal de la Entidad, Asociación, etc.
- Identificación del proveedor.
- Fecha de la factura.
- Actividad que origina el servicio.
- Descripción del servicio.

No se admitirán como justificantes:

- Recibís.
- Costes internos de administración, organización, etc.
- Costes de comidas de hermandad o similares.

d) Aportación de un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, vídeos, CD, etc. que se hayan editado o publicado con ocasión de la actividad o evento subvencionados. En ellos deberá haberse incluido al Ayuntamiento de Leioa como patrocinador de la actividad subvencionada.

3.- El plazo máximo para la justificación será el 31 de diciembre de 2021, viernes.

4.- De conformidad con el capítulo II del Título II de la Ley General de Subvenciones, el expediente de reintegro se ajustará a las normas de

espedienteak Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen VI Kapituluaren ezarritako prozedura-arauekin bat egingo da, eta bertan 15 egun balioduneko epean interesatuari entzute-izapidea emango zaio.

5.- Onuradunak aurkeztutako agiri originalak behar baditu, fotokopia banarekin aurkeztuko dira, erkatzeko, eta originalak zigilatuz. Ondoren, originalak zigilua jarrita itzuliko zaizkio.

6.- Justifikatzeko aurkezten den dokumentazio guztiak ekitaldi ekonomikoaren data eduki beharko du diru-laguntza eman ahal izateko.

#### **11. ARTIKULUA.- BATERAGARRITASUNA.**

Diru-laguntza hauek deituta edo dei daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira, betiere jasotako diru-laguntza guztien batuketak ez badu aurkeztutako aurrekontua gaintzen. Egoera horretan, dagokion zenbatekoan gutxituko da deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

#### **12. ARTIKULUA.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.**

Leioako Udalak, dagokien hitzarmena behin sinatuta, 2021eko diru-laguntzen onuradunei diru-laguntzaren %100 ordainduko die.

#### **13. ARTIKULUA.- EBAZPENA ALDATZEA.**

Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren irizpideen gaineko edozein aldaketak, betiere diru-laguntzaren xedea bete dela ulertzen bada, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

#### **14. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA:**

1.- Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, diru-laguntza ordaindu zenetik

procedimiento establecidas en el Título VI de la Ley 30/92 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de audiencia al interesado por el plazo de 15 días hábiles.

5.- Cuando la beneficiaria precise de los documentos originales presentados, los mismos se aportarán junto con fotocopia, la cuál será cotejada y los originales sellados y devueltos a aquélla.

6.- Toda la documentación justificativa presentada, habrá de estar fechada en el ejercicio económico para el que se conceda la subvención.

#### **ARTÍCULO 11.- COMPATIBILIDAD.**

Estas subvenciones son compatibles con cualesquiera otras convocadas o que se convoquen, siempre que del conjunto de las que se reciban por la actividad objeto de las mismas no se produzca sobre financiación respecto del presupuesto sobre el que hayan sido concedidas. Ante tal supuesto, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso del importe de la ayuda concedida en virtud de la presente convocatoria.

#### **ARTÍCULO 12.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN.**

El Ayuntamiento de Leioa, previa firma del correspondiente convenio, abonará el 100% de la subvención ordinaria a los beneficiarios de la concesión de la subvención 2021.

#### **ARTÍCULO 13.- MODIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN.**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objetivo de ésta, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de subvenciones.

#### **Artículo 14.- REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN:**

eta itzulketaren bidez kotasuna erabaki bitarteko epeari legozkiokkeen atzerapen interesak barne, honako kasuren bat jazoko balitz:

- a) Emandako zenbatekoa eskatutako xederako ez erabiltzea.
- b) Diru-laguntza jaso izana horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete barik.
- c) Onuradunari leporagarriak diren arrazoiak direla-eta, deialdi honetako 8. artikuluan onartutako obligazioekin ez betetzea.
- d) Justifikatzeko obligazioarekin ez betetzea deialdi honetako 9. artikuluan zehazten diren terminoetan. Gastuaren justifikazioa partziala egingo balitz, justifikatu barik geratu den zenbatekoari legokiokkeen zenbateko baliokidea itzuli beharko litzateke.
- e) Aktibitatearen kostu errealarri erreparatuz, gehiegizko finantzazioa. Kasu horretan, soberakina itzuli beharko da.
- f) Bestelako erakunde publiko edo pribatuak emandako diru-laguntza guztien batuketaren ondoriozko gehiegizko finantzazioa. Hala balitz, onuradunak Leioako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko luke, Udalaren ekarpenarekiko proportzionala, finantzatutako zenbateko osoarekin alderatuz.
- g) Aktibitatea burutzeko edo proiektua exekutatzeko moduari erreferentzia egiten dioten eta diru-laguntza ematen duen ebazpenean onuradunari ezarritako baldintza edo obligazioekin ez betetzea. Kasu horretan, hausteen larritasuna baloratuko da itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeke,

1.- Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos siguientes:

- a) No destinar la cuantía concedida a la finalidad concreta para la que se solicitó.
- b) Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.
- c) El incumplimiento, por razones imputables al beneficiario, de las obligaciones asumidas en el artículo 8 de la presente convocatoria.
- d) El incumplimiento de la obligación de justificación en los términos establecidos en el artículo 9 de la presente convocatoria. Si se realizase una justificación parcial del gasto, habrá de reintegrarse la cantidad equivalente al gasto que haya quedado sin justificar.
- e) El exceso de financiación con relación al coste real de la actividad, en cuyo caso habrá de reintegrarse la suma remanente.
- f) La sobre financiación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Leioa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado.
- g) El incumplimiento de las condiciones u obligaciones impuestas a los beneficiarios en la resolución por la que se concediera la subvención, referentes al modo de realización de la actividad o ejecución del proyecto. En

ekitate eta proportzionaltasun printzipioak aintzat harturik.

2.- Guztira edo zatitan itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeko, proportzionaltasun eta ekitate printzipioen arabera egingo da. Horretarako, kasu konkretu bakoitzeko ezaugarriei erreparatuko zaie.

3.- Diru-itzulketa exijitzen duen ebazpena Alkatetzak emango du.

4.- Itzultze-espedita azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen VI. Tituluak ezartzen dituen arauen menpe egongo da. Espediente horretan, audientzia izapidea emango zaio interesatuari 15 egun balioduneko eperako.

5.- Diru-laguntza itzultzeko obligazioa egiaztatuta, organo eskudunak ebazpena emango du betekizun hori agertzeko. Ebazpenean dirua itzultzeko beharra eragiten duen arrazoia, itzuli behar den zenbatekoa eta diru-sarrera egiteko epe boluntarioa beren-beregi aipatu behar dira. Halaber, ohartaraziko da, itzulketa epe barruan egin ezean, premiamendu bidez egingo dela.

#### **Azken xedapena.**

Diru-laguntzen deialdi honek aurreikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak onartzen dituen Ordenantza Orokorra.

este caso, se tendrá en cuenta la gravedad de los incumplimientos cometidos para determinar la cuantía a reintegrar, atendiendo a los principios de equidad y proporcionalidad.

2.- Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto.

3.- La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por la Alcaldía.

4.- El expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en el Título VI de la Ley 30/92 de 26 de Noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el mismo se dará trámite de audiencia al interesado por el plazo de 15 días hábiles.

5.- Verificada la obligación de devolución de la subvención, el órgano competente dictará resolución declarando tal deber. Dicha resolución será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, así como la cuantía que ha de devolverse y plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que, caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por la vía de apremio.

#### **Disposición Final.**

En lo no previsto en esta convocatoria de subvenciones será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Reguladoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.